

egungoa

S I N D I K A I H E Z I K E T A

1999ko egoera
ekonomikoaren
azterketa.
1go seihiilekoa


LAB
Hezkuntza

ZA
BAI
TZEN

Zbkia

SHK 00666

DOKUMENTAZIO
ZENTROA



**1999ko egoera
ekonomikoaren
azterketa.
Lehenengo sei hilekoa**

Erredakzioa: **Joselu CERECEDA**
Marijo ARRAIZA
Rafa IZQUIERDO
Sara QUESADA
Iosu HUERTAS
Aitor ASTIBIA

Argitarazlea: **Ipar Hegoa Fundazioa**



EUSKO JAURLARITZA
JUSTIZIA, EKONOMIA, LAN
ETA GIZARTETIKO SEGURANTZA SAHIA



GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
ECONOMIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

1999ko abendua



SINDIKAL HEZIKETA

1999ko egoera ekonomikoaren azterketa. Lehenengo sei hilekoa

EUSKAL EKONOMIARI BURUZKO NOTA BATZUK	5
HEGO EUSKAL HERRIKO LAN MERKATUA	8
KONTRATAZIO HEGO EUSKAL HERRIAN. 1999KO LEHENENGO SEIHILEKOA	10
ERANSKINAK	12



Euskal ekonomiari buruzko nota batzuk

Gaur ziklo ekonomikoaren goranzko fase baten barruan gaudela esaten da. Erdizkako egia da. Bai, gaurko egoera ekonomikoa goranzkoa da, baina, eta hau ezin dugu ahaztu, Munduko Ekonomia beheranzko garai batean murgilduta dago.



Guzti horrek zera esan nahi du: Munduko Ekonomiaren beheranzko joera epe luzerako dela eta garai honek, epe laburrekoa. Jakinaenez, Ekonomiaren epe luzerako zikloek epe laburreko goranzko eta beheranzko ziklo ugari izaten dituzte eta holako laburreko batean gaude. Zoritxarrez, ez dakiguna zera da: epe luzerako zikloaren hondora, minimora, noiz ailegatuko garen. Baina, itxura guztien arabera, Mundu-mailan, bide horretan gaude eta hara ailegatuz gero, egoera somaezina eta, seguru, ezin tamalgarriagoa izango da. Aurreikuspen hauek, Samir Amin-ek dioen bezala, Munduko Ekonomiari dagokion epe luzerako benetako azterketaren ondorioak dira, ez inolako katastrofismoak eraginda. Epe luzerako ziklo honek, hogeitau urte baino gehiago ditu eta bere beherakada -

unitate errealean neurtuta- gero ta sakonakoagoa da. Ziklo produktibotik kanpo dagoen dirutza gero ta haundiagoa da eta etekinak lortzeko Burtsetara doa. Horrexegatik finantza-espekulazioa gero ta haundia ta kontrolaezinagoa da, eragin somaezinak lortzeko gai da eta ondorioz, bere potere ekonomiko-politikoa izugarria da (Estatuen dutena baino askoz haundiagoa).

Egia esan, hala 1.997.ean nola 1.998.ean, Hegoaldeko iharduera ekonomikoak garapen-tasak oso altuak izan zituen (EEAn %4,4a-%5,2a eta Nafarroan %5,9a-%3,8a hurrenez hurren), Estatukoa (%4a) eta Europar Batasuneko (%2,8a) baino haundiagoak. Aipaturiko garapen-tasak, BPG-ri dagozkio.

Gaurko goraldia hasi zen 1.994.ean. Beti bezala, atzeraldian, enpleguaren beherakada BPG-rena baino altuagoa den bitartean, goraldian, hain-zuzen, kontrakoa gertatzen da. Euskal Herrian, goraldiak ez du izan ia ia eraginik Ogasun banaketan, giza bazterketak bere horretan dirau eta Lan Merkatuak berdin, erromeskeria, prekaritatea, langabezia prestazioaren murrizketa nagusi izanik.

Lan Munduan emakumeak jasatzen duen bazterketa eskandalagarria da, erabat. CMT ikerketaren arabera EE-Ako sei zonaldeetan, gizonezkoen artean ia enplegu osoa (langabezia, %5 baino gutxiagokoa) dago. Leku haueetan, emakumeen egoera bestelakoa da. Goierrin, adibidez, gizonezkoen langabezi-tasa %4,30koa da eta emakumeena %25,30koa. Durangaldean

1999ko egoera ekonomikoaren azterketa - Lehenengo sei hilekoa

dira, hurrenez hurren, %4,70 eta %27,90. Zentzu honetan, eta Europa-ko egoeraz alderatuz, daukagun atzerapena izugarria da.

KPIa HEGO EUSKAL HERRIAN.

Hegoaldean, joan den Abuztuan, KPI-k %0,4ko igoera izan zuen, zeinak urte barruko inflazio-tasa %2,8 mailan kokatu baitzuen, hots, Espainiar Estatuko baina lau hamarren gehiagokoa, Moneta Batasuneko %1,2koa den bitartean. Beraz, bai Estatuak, bai Euskal Herriak, elkarlehiatzeko gaitasuna galdu dutela esan daiteke.

Dagoeneko, Madrilgo Gobernuak berak aitortu du, urtearen amaierako inflazio-tasa %1,8 mailan finkatzen duten aurreikuspenak ezin direla bete. Guzti honek frogatzen du, Madrilgo Exekutibak erabiltzen dituen liberalizazio-neurriak, inflazioa kontrolatzeko orduan, emaitza eskasak izaten dituztela, zeren badira Energetiko bezalako merkatuek, oligopolio-prezioak inposatzen dituztenak. Izan ere, petroliodun ekoizkinekin prezioek, KPI-ren 0,8 puntuko igoera eragin dute.

Beste behin, kaltetuenak, soldatak izango dira, zeren aurten, orain arte itaunduta dagoen soldata-igoera %2,01a baita, inflazio-tasaren azpitik. Beraz, inflazioa bultzatzen dutenak ez dira soldata-igoerak, baizik eta inflazio-arriskuaren benetako eragileak enpresa-marginak dira. Ondo baina hobeto ulertzen da, sorturiko aberastasunaren banaketan lan sariak daukaten partaidetzaren erorketa, enpresa-errenten mesederako.

DATORREN URTEAN, BANKAK KORRITU TASAK IGOKO DITU.

Bankak, maileguen korritu tasak, orain arte izan duten etengabeko jaitzierari, bukaera emango dio. Altxorreko Bonuek, jadanik beren korritu tasa igo dute. Merkatuetan, "adituek" diote diruaren korritu ofiziala %3a izango dela. Momentuz, datu esanguratsu bat daukagu: EURIBOR-rek, MIBOR-ren ordezkua, izan duen lehenengo balioa, %3a baino gehiagokoa izan da.

Kontsumitzaileentzat, aipaturiko egoera kaltegarria izango da, noski. Baina ekonomia orokorarentzat ere bai, zeren korritu tasaren igoerak Inbertsioa murrizten baitu eta horren ondorioz, Barne Produktua eta enplegua.

DAEWOO AUZIA.

Borroka eta mobilizazioez beteta izan den gatazka baten ondoren, Daewoo-ko plantillak korear multinazionalaren itxikeria gainditu du, grebaren hasieran baino lehen zegoen lan-desregulazioa desagertaraziz. Grebak hiru hilabete iraun du.

Erreibindikazio-taularen puntu gutxietan arrakasta nabarmenak -totalak batzuetan- lortu dira. Zuzendaritzak, grebaren hasieran zeuden aldi baterako langile guztiek mugagabeko lan-kontratuak izan ditzatela onartu du.

Lan-denbora 36 ordu murriztuko da eta Hitzarmen hau indarrean egongo den azken urtean, Arabako Metaleko Komenioan lan-denbora txikiagoa

izango balitz, Daewoo automatikoki egokituko luke berea. Gainera, lantasaioa jarraitua izango da, ez zatikakoa, orain arte bezala.

Datozen hiru urterako soldata-igoera %4koa gehi KPI izango da eta 30.000, 40.000 eta 80.000 pezetako sari finkakor batzuk, hurrenez hurren.

Halaber, inkorporazio berrirako frogaldia, 18 hilabetetik 8etara murriztuko da, eta aparteko sariak kobratzeko eskubidea -dagozkien proportzioan- onartuko zaie.

Gatazkaren hasieran planteatzen ez ziren garrantzi handiko erreibindikazioak lortu dira, esate baterako, kategorien azterketa eta Lan Harremantarako Kontseiluan onartu zen aparteko orduak ezabatzeko Akordioaren aplikazioa.

KRISIAN DAUDEN ENPRESA BATZUK.

"Mecanica de la Peña" enpresak, "adituek" diotenez, bere lantaldearen murrizketak 228 laguneko izan behar du (eta aldi berean, 87 langile berri kontratatu behar ditu). Horrela gertatzen zekotan, lanpostuen jaitsiera %33koa izango litzateke.

"Babcok Wilcox" enpresaren langile batzordeak, ez du enpresaren pribatizazioa onartuko, Industri Plan egoki eta gordin bat lantzen ez den bitartean. Enpresaren egoera tamalgarria da. Langileen hitzetan, "Espainiako Ministroak, "Babcok Wilcox" enpresako itxieraren inguruko adierazpenak egiten dituen bitartean, SEPIk, (Sociedad Española de Participacio-

nes Industriales) guzti hori ezeztatzen du. Bitartean, Eusko Jaurlaritzak, gai honi buruz ezer ez dakiela dio, baina ezagunak dira beste irtenbide bat lortzeko egin dituen saiakerak".

Baionan, "ADA" burdindegia, ixteko arriskuan dago. Hau gertatuko balitz, Iparraldeko ekonomiarentzat hondamen izugarri bat izango litzateke. Enpresa honek miliardo bat librazio negozioko kopurua dauka, zuzenean 250 eta zeharka 300 langileri lana ematen.

"Tabacalera" enpresak Donostian duen lantegia ixteko nahian dabil, hemendik hiru urtera, gehien jota. Honek, gertatzekotan, 217 lanpostuen galera suposatuko luke.

DATU ZABALKOR BATZUK.

Gamesa Taldea, Eusko Jaurlaritzarekin negoziatzen dabil, subentzioak lortu nahian, ENBRAER 170 izeneko abioia ekoizteko (jatorriz, brasildarra). Honek, gutxi gora-behera, 2.000 milioiko subentzioak suposatuko litzuzke. Oraindino ez dakigu zehatz-mehatz Gamesa Taldeak egin behar lukeen inbertsioa zenbatekoa litzateke. Badirudi egitasmo honek 200 lanpostu zuzen eta 320 ez zuzen sortuko litzuzkeela.

Europar Batasunak baimena eman dio "Mercedes" enpresari lantegi berri bat eraikitzeko, Gasteizen, hain zuzen. Egitasmo hau errazteko, "Mercedes" enpresak, Europatik jasotako laguntzak, 5.324 milioikoak izango dira, enpresak 99.000 milioi inbertituko dituen bitartean. Lagunt-



za honek, Europar Batasunak jadanik onetsi ditu.

ARRANTZA ARLOA, EUROPAKO JUSTIZIA TRIBUNALAK KALTETUTA.

Europako Justizia Tribunalak baimena eman dio Portugal-i, dagokion antxoa-kuotaren %80a Frantziari ematea. Frantziak, antxoa-kopuru hau Bizkaiko Golkoan harrapatuko duenez, arrantzatu ahalko du antxoa-kopuru izugarri bat (Frantziar-i dagokion Ha-

rrapaketa Onarkorren guztizkoaren %10a gehi Portugal-ek utzita). Hau ez da biologikoki eragingarri eta arrain mota honetako arrantzarako izango da oso kaltegarria, bai espezie honentzat, bai Euskal Arrainuntzerientzat.

Hego Euskal Herriko lan merkatua

Euskal Herriko lurralde-desegituratzeak, alde batetik, eta Herrialde guztietako informazio sozioekonomikoa biltzeko Estatistika Institutu baten ezak bestetik, metodologia homogeno batez landutako datuak izatea eragozten digute.

Bestaldetik, erabilitako informazio-iturriaren arabera, datuak desberdinak dira. Taula honetan ikus daitekeenez, gauza bera gertatzen da, Lan Merkatuaren egoera aztertzeko orduan:

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		NAFARROA
Langabetuak	19.300	13.110	94.700	85.400	36.100	29.000	18.500
Langabezi tasa	%13,7	%10	%18,9	%18,1	%11,5	%10	%8,3
1999ko 2. hiruhil.	<i>PRA</i>	<i>EPA</i>	<i>PRA</i>	<i>EPA</i>	<i>PRA</i>	<i>EPA</i>	<i>EPA</i>

"La Encuesta de Población en Relación con la Actividad"(PRA) - "Iharduerari Dagokion Populatzeko Inkestak", Eusko Jaurlaritzako Estatistikak egindakoa, beti ematen ditu langabezi-kopuru altuagoak, "Encuesta de Población Activa"(EPA)-"Populatzeko Aktibo Inkestak" emandakoak baino. Inkesta garatzeko erabilitako datuen kopuruagatik, PRA fidagarriagoa da, EPA baino, baina desabantaila bat dauka: Arabari, Bizkaiari eta Gipuzkoari buruzko informazioa baino ez du ematen.

Horrexegatik, Euskal Herriko Lan Merkatuari buruzko azterketa global bat egiteko orduan, EPA erabiltzen dugu, zeren informazio homogenea ematen digun inkesta bakarra baita. Hala eta guztiz, esan bezala, datu hauek zehaztasun hartu behar dira, beste informazio-iturri batzuk azaltu gabe.

EPA aztertzeko, beste arazo bat kontutan hartu behar dugu: urte honen hasieran, enpleguari buruzko hitz egiteko orduan, garrantzi handiko

den azpienplegu kontzeptuari sarturiko aldaketak. BBV-k egindako azterketa baten arabera, enplegu-kopuruek izan duten gorakada ikaragarrien iturria, aldaketa honetan datza.

Analisi honen arabera, aurtan, dagoeneko 145.000 enplegu sortu dira Estatu osoan, baina ez dira benetako lanpostu sortuak izan. Hegoalderi dagokionez, honek, 10.200 enplegu berri ez direla holakoak suposatuko luke, baizik eta lehen aipaturiko aldaketa metodologikoaren ondorioa.

LAN MERKATUAREN EGOERA 2. HIRUHILEKOAN.

EPA-ren ustetan, urte honen 2. hiru-hilekoan, 146.000 langabetu zeuden Hego Euskal Herrian. Baina, lehen aipaturiko desberdintasun estatistikak direla eta, PRA inkestak, EEAn, EPA-k baino 22.600 langabetu gehiago kontabilizatzen zituen.

Azken bost urteotako hazkunde ekonomikoa garrantzitsua izanarren, europear langabezi-tasarekiko dagoen diferentziala haundia da oraindik orain, iharduera-tasa txikiagoa dela ere kontutan hartu gabe.

Iharduera-tasa baxuen azpitik, Lan Merkatutik kanporatuak izan diren giza-talde esanguratsuak daude. Etzekoandreak, beren ikasketak luzatzen dituzten gazteak eta enplegua biltzeari uzten dioten langile adoragabetuak, zeinek, adinagatik, kualifikazio eskasagatik edo beste edozein arrazoiengatik, lana aurkitzeko os-topo haundiak dituzten.

1.999.ko 2. hiru-hilekoan, emakumezkoen iharduera-tasa %39,80koa zen, eta gizonezkoena, %63koa. Lanaren banaketa sexistak, enplegura lortzeko emakumezkoek dituzten posibilitateak eta modua baldintzatzen ditu, gehiengo haundi bati lan-bazterketa inposatuz.

Emakumezkoak baztertuak ez balira eta gizonezkoek daukaten antzeko iharduera-tasa izango balute, euren langabezi-tasa gaurkoa bider lau izango litzateke. Hala eta guztiz, eta Lan Merkatuan dagoen egoeran, langabetuen %63a dira.

HEGOALDE	GUZTIRA	EMAKUME.	GIZONAK	GAZTEAK
<i>Landunak</i>	970.900	369.400	601.500	99.000
<i>Langabetuak</i>	146.000	91.700	54.200	36.400
<i>Langabezi tasa</i>	13,1%	19,9%	8,3%	26,9%
<i>Enplegu tasa</i>	44,1%	31,9%	57,7%	29%
<i>Iharduera tasa</i>	50,7%	39,8%	63%	39,6%
<i>Aldikotasun tasa</i>	31,2%	35,8%	28,1%	69,3%

Informazio iturria: EPA, 1999ko 2. hiru-hilekoa.

Bestaldetik, lan ordainduta lortzen dutenek, era askotako bereizkeriak pairatzeko behartuta daude: kualifikazio gutxiagoko lanpostuak, soldata baxuagoak, prekarietate haundiagoa....

Euskal gazteriarri dagokionez, inposaturiko eredu sozioekonomikoak gogorren zigorkatzen duen arloa dela esan dezakegu. Lan Merkatura lehengo aldiz sartzen den kolektiboak denez -trebakuntza profesionalik gabe, gainera-, gazteriak, klase langilearen baitan, kokagunerik ahulena dauka, emakumezkoen antzeko iharduera-tasaz eta %27ko langabezi-tasaz.

Gazteek jasaten duten prekarietate-mailak -%70retatik hurbil dagoen aldikotasun-tasa batez-, bizitza burujabe eta egonkorreko egitasmo bat garatzea eragozten die. ABLE motatako lan enpresek lortu duten bitartekotze gaitasunak eta zerbitzu enpresen garapenak, gazteriarren egoera larriagotzen dute.

Ugazaberia, bereizkeria eta prekarietaren era berriak bultzatzen ari da.

Izan ere, maila bereziko lanpostuak sortu dira azken urteotan, soldata baxuagokoak, langile berriei zuzenduta. Esan gabe doa jarrera hau salagarria dela, erabat.

Gaur egun, 7 langabetutik, lauk, urtebete baino gehiago daramate lanik gabe, emakumetan ehuneko hau haundiagoa izanik. Egoera honetatik ateratzeko dagoen zailtasun hazkorrak eta langabezi estaldura-tasaren urripenak, langabezia, pobrezia eta giza-bazterketari gero ta lotuago ego-tea eragiten dute.

Zentzu honetan gure iharduera sindikalaren helburuak berberak izaten jarraitzen dutela azpimarratu behar dugu: 35 orduko lan astea, enplegua sortzeko eta giza-soldataren ezar-keta.

Halaber, lantokietan, enpresetan, behar-beharrezkoa da, aparteko orduak desagertarazteko eta erros-meskeriaren aurka iharduteko, gure ahaleginik haundienak buru belarri erabiltzea.

Kontratazio Hego Euskal Herrian

1999ko 1. seihilekoa

1.999ko lehenengo seihilekoan, INEM-eko bulegoek, 390.000 kontratu berriak erregistratu dituzte Hegoaldean. 1.998ko Urtarrila-Ekaina tartean sinaturiko kontrauez parekatuz, honek, %16ko gehikuntza suposatzen du.

Oraingo honetan, mugagabeko kontratuak, kontratuen guztizkoaren %10,40a izan dira, hots, iazko denbora-tarte berean izandakoa baino 1,6 puntu gehiago.

Hala eta guztiz, mugagabeko kontratuen %70ak, "Mugagabeko Kontratazioa bultzatzeko kontratua" deituriko izaera dauka. Kontratu era hau, 1.997ko Lan-Erreforma sortua izan zen eta Gizarte Segurantzarako enpresa-kuotetan gainsari handiak ditu. Kontratu honek, kaleratze-indemnitazio txikiagoa duenez, enplegurako ezegonkortasun gehiago suposatuko duela esaten da. INEM-ek berak dio kontratu hau indarrean sartu zenetik, mota honetako bost kontratutik, bat jadanik bertan behera dagoela, nahiz eta zizklo ekonomikoaren goraldi batetan egon.


Mugagabeko kontratu berri honi esker enpresariak lortzen dituzten abantailek, Mugagabeko kontratu arruntaren desagerpena eragin dute ia ia. Aztertzen dugun aldian, kontratu mota honek, egindako kontratuen

guztizkoaren %1,50a baino ez du suposatu.

Gainera, Mugagabeko kontratuen %11,50a denbora partzialekoak dira, hots, lan-baldintzak prekarioak eta giza-estaldura pobreagoak dituzte. Beraz, prekarioko kontratazioa, lehenengo seihilekoan %91koa izan dela esan dezakegu.

Oroit daitekeenez, CEOE-k, CEPYME-k, CCOO-ek eta UGT-k itundutako akordioetan konpromizua hartu zen: "kontratazio sisteman egonkortasun gehiago eta errotatze txikiago" bermatzeko, aldi baterako kontratazioan erabiltzen diren supostuak zehaztea eta mugatzea.

KONTRATAZIOA HEGO EUSKAL HERRIAN
1.999ko LEHENENGO SEIHILEKOA



Horretarako, "Obra edo zerbitzu" deituriko kontratuei eta ekoizpen arrazoiengatik alde baterakoei jarraipen berezia egitea erabaki zen. Bi urte igaro eta gero, kontratu motarik erabilienak, hauek berek izaten darrarite. Gaur egun, kontratu hauek guztizko kontratazioaren %58a baino gehiago suposatzen dute, 1.996.ean, %54a ziren bitartean.

Bestaldetik, aipaturiko akordio hauek ez dute balio aldikotasun tasa murrizteko, zeinak 1.997ko Lan-Erreforma baino lehen zuen maila mantentzen baitu. EPA-ren arabera (INEk egindakoa), urte honen bigarren hiruhilekoan, aldikotasun tasa %31,20koa zen, hots, praktikan, hiru langiletik, batek aldi baterako kontratua dauka.

Eraginkortasun falta berbera ikusi da, gehiegizko lan-errotatze murrizteko orduan. Lehenengo sei hileko honetan iraupen zehazteko kontratuen guztizkoaren %99,60ak urte baino gutxiagoko iraupena dauka eta hauetatik, %77,20ak, hiru hilabete baino gutxiagokoa.

Kausaltasun printzipioarekiko kontratazioan dagoen desregulazioak eta aldi baterako era askotako modeloen erabilera faltsuak, iraupen laburreko kontratuen kateamendu bidegabea errazten dute.

Guzti honek, langileek pairatzen duten behin-behinekotasuna eta beren kontratuak erraberritu nahi dutenean jasotzen duten xantaia ulertzea errazten digu.



Gazteriari dagokionez, kontratuen %7,10a bakarrik dira mugagabeak eta hauetatik, %6a dira mugagabe arruntak.

Lanpostu tinko batez Lan Merkatura iristeko dauden posibilitate urriek, kolektibo honek pairatzen duen izugarritzko aldikotasun tasa eragiten dute. Besteen kontura lan egiten duten 10 gaztetatik, 7k aldi baterako lan kontratua daukate.

Emakumei dagozkien kontratazio datuek ere, Lan Merkaturan jasatzen

duten bereizkeria adierazten dute. Nahiz eta langabezia dauden langileen %63a emakumeak izan, 1.999ko lehenengo hiruhilekoan garatu ziren kontratuen %43,30a baino ez zuten sinatu. Mugagabeko kontratuei bagozkie, ehunekoa murrizten da: %36,30a eta Mugagabeko arruntak badira, %28,90a. Baina Bitartekotasun kontratuen %65,90a eta Denbora partzialeko (Mugagabeak eta Aldi-baterakoak) kontratuen %67,30a emakumezkoentzat dira.

Sexuaren eta adinaren araberako eginiko kontratazio diskriminatzaileak ezagunak izanarren, behar-beharrezkoa da salatzen jarraitzea. Baina gure azterketan eta hausnarketan egoteaz gain, ezinbestekoa da, egoera honi aurre egiteko erabiltzen ditugun ahaleginak berrindartzea, negozio kolektiboaren eta ekintza sindikalaren bidez.



Eranskinak

HEGO EUSKAL HERRIKO LAN MERKATUA

(EPA: 1999ko 2. HIRUHILEKOAN)

* 16 urte baino gehiagoko biztanleriak ez ditu soldaduzka edo PSSa egiten duten gizonezkoak.

SEXU BLOK	2. Hiruh. 99	4. Hiruh. 98	Desb.	SOLDATAPEKOAK	
LANDUNAK	970.900	936.000	34.900	Guztira	760.100
LANGABETUAK	146.000	162.200	-16.200	Mugagabe.	522.800
AKTIBOAK	1.116.900	1.098.200	18.700	Aldibatera.	237.300
LANGABEZI TASA	13,1	14,8	-1,7	LANGABEZIAN	
ENPLEGU TASA	44,1	42,5	1,6		
IHARDUERA TASA	50,7	49,9	0,8	urtebete +	84.000
ALDIKOTASUN TASA	31,2	30,0	1,2	2 urte +	63.100
16 urtetik gora	2.201.300	2.201.200	100		

EMAKUMEAK	2. Hiruh. 99	4. Hiruh. 98	Desb.	SOLDATAPEKOAK	
LANDUNAK	369.400	341.400	28.000	Guztira	307.500
LANGABETUAK	91.700	99.900	-8.200	Mugagabe.	197.300
AKTIBOAK	461.100	441.300	19.800	Aldibatera.	110.200
LANGABEZI TASA	19,9	22,6	-2,7	LANGABEZIAN	
ENPLEGU TASA	31,9	29,6	2,3		
IHARDUERA TASA	39,8	38,3	1,5	urtebete +	58.000
ALDIKOTASUN TASA	35,8	32,9	2,9	2 urte +	44.000
16 urtetik gora	1.159.500	1.153.200	6.300		

GIZONAK	2. Hiruh. 99	4. Hiruh. 98	Desb.	SOLDATAPEKOAK	
LANDUNAK	601.500	594.600	6.900	Guztira	452.700
LANGABETUAK	54.200	62.400	-8.200	Mugagabe.	325.500
AKTIBOAK	655.700	657.000	-1.300	Aldibatera.	127.200
LANGABEZI TASA	8,3	9,5	-1,2	LANGABEZIAN	
ENPLEGU TASA	57,7	56,7	1,0	urtebete +	26.200
IHARDUERA TASA	63,0	62,7	0,3	2 urte +	19.200
ALDIKOTASUN TASA	28,1	28,2	-0,1		
16 urtetik gora	1.041.600	1.048.100	-6.500		

GAZTEAK (<25 URTE)	2. Hiruh. 99	4. Hiruh. 98	Desb.	SOLDATAPEKOAK	
LANDUNAK	99.000	94.200	4.800	Guztira	90.700
LANGABETUAK	36.400	42.100	-5.700	Mugagabe.	27.800
AKTIBOAK	135.400	136.300	-900	Aldibatera.	62.900
LANGABEZI TASA	26,9	30,9	-4,0	LANGABEZIAN	
ENPLEGU TASA	29,0	26,5	2,5	urtebete +	14.300
IHARDUERA TASA	39,6	38,3	1,3	2 urte +	9.200
ALDIKOTASUN TASA	69,3	75,2	-5,9		
16 urtetik 25era	341.900	356.100	-14.200		

HEGO EUSKAL HERRIAN EGINIKO KONTRATUAK

1999 - URTARRILA/EKAINA (EHUNeko BERTIKALAK)

	GUZTIRA	%	Emakum.	%	Gizonak	%	<25 urte	%
EZ-MUGATUAK								
Ohikoak	7.003	1,8	2.021	1,2	4.982	2,3	569	0,4
Sustapenekoak	13.053	3,3	4.422	2,6	8.631	3,9	4.208	3,2
Bihurtuak	15.484	4,0	5.117	3,0	10.367	4,7	3.203	2,4
Aldi partzialekoak	4.639	1,2	3.051	1,8	1.588	0,7	1.343	1,0
Besteak	294	0,1	67	0,0	227	0,1	33	0,0
GUZTIRA	40.473	10,4	14.678	8,7	25.795	11,7	9.356	7,1
ALDIBATERAKOAK								
Obra edo zerbitzukoak	104.197	26,7	27.910	16,5	76.287	34,5	30.885	23,5
Ekoizpe arrazoiengatik	122.255	31,4	47.320	28,0	74.935	33,9	45.806	34,8
Bitartekoak	35.176	9,0	23.195	13,7	11.981	5,4	8.168	6,2
Aldi partzialekoak	74.675	19,2	50.361	29,8	24.314	11,0	30.133	22,9
Praktiketakoak	5.264	1,4	2.277	1,3	2.987	1,4	3.337	2,5
Prestakuntzakoak	2.741	0,7	769	0,5	1.972	0,9	2.700	2,1
Besteak	4.881	1,3	2.229	1,3	2.652	1,2	1.064	0,8
GUZTIRA	349.189	89,6	154.061	91,3	195.128	88,3	122.093	92,9
GUZTIRA	389.662	100	168.739	100	220.923	100	131.449	100

IRAUPEN MUGATUKO KONTRATUAK, HEGO EUSKAL HERRIAN

1999 - LEHENENGO SEIHILEKOA

	hil<=3	3<hil<=12	12<hil<=18	18<hil<=24	24<hil.	Azpitotala	Zehazkabe
KONTRATU KOPURUA	160.535	47.313	597	166	159	208.770	140.419
%	76,9	22,66	0,29	0,08	0,08	100	